

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa diputazioa izango da beraiei proposatuko diegulako proiektu hau eta saiatuko gara haiei saltzen gure ideia. Gure asmoa urtero diputazioarengandik portzentai bat jasotzea da hasiera batean jasotako ordainketatik aparte.

Hala ere, gure azken bezeroa taxia erabili nahi duen edozein da, haietan talde espezifiko asko kokatu daitezke ezaugarri desberdinetan banatuta, beraz, merkatua masiboa da.

Hauek dira gure bezeroak:

1. Bidaiari arruntak (eguneroko garraioa)

- Lanera edo etxera joateko erabiltzen dutenak.
- Autobus edo metro aukerarik ez dutenean taxiak erabiltzen dituztenak.

2. Turistak

- Aireportu-hiri erdigune arteko mugimenduak.
- Bisita gidatuetarako edo hiri barruko desplazamendu erosoak.
- Normalean informazio gutxi dutenak garraio publikoari buruz, beraz taxi-zerbitzuak errazago aukeratzen dituzte.

3. Aireportu edo tren geltoki inguruko bezeroak

- Maletarekin doazen eta azkartasuna baloratzen duten pertsonak.
- Enpresa-bezeroak edo bidaia profesionalak egiten dituztenak.

4. Enpresa-bezeroak

- Bilera, jardunaldi edo ekitaldietara joateko garraio fidagarria behar duten langileak.
- Askotan konpainia-kontratuak edo ordainketa hilabetekoa dutenak.

5. Ekitaldietarako bezeroak

- Kontzertuak, festak edo gaueko aisialdiak.
- Ibilgailu handiak edo talde-garraioa behar izaten dute (taxi 7-9 plazakoak)

6. Adineko pertsonak edo mugikortasun urrikoak

- Osasun-zentroetara joateko garraioa.
- Mugikortasun erraztua edo auto bereziak behar dituzten erabiltzaileak.

7. Premium edo luxuzko segmentua

- Zerbitzu eksklusiboa, ibilgailu luxuzkoak, gidari elebidunak, puntualtasun osoa...
- Hotelen edo negozio handien bezeroak.

Gure xede bezeroa 18 urtetik aurrerako pertsonak dira, hiri inguruan bizi direnak eta garraio azkarra eta eroso behar dutenak. Hemen ere sar daitezke lanbidera eta bidaietara lotuta dauden erabiltzaileak.